

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduak.

PRACTICUM III

Gida Orokorra

2018-19 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. IRAKASGAIAREN TESTUINGURA.....	3
3. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA	4
3.1. Prozedura administratiboak.....	4
3.2. Arau orokorrak.....	4
3.3. Plazen eskaintza eta esleipena	5
3.4. Ikasleen ikastetxe hautaketa.....	5
3.5. Baliozkotzeak.....	6
3.6. Kasu berezietarako irizpideak.....	6
3.7. Practicumeko partaideen eginkizunak	9
3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea	9
3.7.2. Ikastetxeko tutorea.....	9
3.7.3. Unibertsitateko PII-ko koordinatzailea.....	10
3.7.4. Unibertsitateko tutorea	11
3.7.5. Ikasleak	12
4. PRACTICUM III-KO PROGRAMA	
4.1. Helburuak	13
4.2. Konpetentziak.....	13
4.3. Ikaskuntza emaitzak.....	14
4.4. Gaitegia.....	16
4.5. Ebaluazioa.....	17
5. ERANSKINAK	18
Eranskin I. Ebaluazio orria. Ikastetxeko Tutorea.....	18
Eranskin II. Ebaluazio-orria. Unibertsitateko Tutorea.....	20

1.SARRERA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFAko) ikasketen Graduetan eskaintzen diren bi titulazioetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) berrikuntza handiena laugarren ikasturtea gehitzea izan da, Minorrarena hain zuzen ere.

Ikasturte berri honetan, garrantzi bereziki handia hartzen du Practicum IIIak: ikasleak hamabi aste eman beharko ditu eskola batean irakasle-lana behatu, horretan jardun eta bere lanaren inguruan hausnarketa eginez.

Maisu-maistrei esleitzen zaien profilaren arabera, ikasleek beren jarduera garatzen den testuingurua aztertzeko eta planifikatzeko gai izango diren profesionalak izan beharko dute. Horretarako, irakaskuntzaren ulergarritasuna eskakizun indibidualekin batera uztartzeko gai izan behar dute eta, era berean, Ikastetxearen Proiektuaren barruan talde batean lan egiten ere jakin.

Practicum hau, beraz, heziketa-ibilbidean guztiz txertatuta agertuko zaigu, ikaskuntzarako adierazgarri eta kontrasterako iturri gisa. Halaber, praktikak zentzu bat ematen die horren euskarri diren eta horien bilakaera orientatu dezaketen ezagutza teorikoei. Hori dela eta, PIII honetan garrantzi berezia izango du ikaslea egiten ari den Minorraren alorrean jarduteak eta bertatik jasoko duen esperientziak.

Era berean, ikerketarako gaitasuna ere adierazi beharko luke, ondoren burutu beharko dituen azterketa sakonagoak egiteko gai izan dadin.

Beraz, ikasleak Practicum III honen bidez eskuratu beharreko gaitasun nagusia da heziketa prozesua bizitzea eta prozesu honekin zerikusia duen ororen inguruan gogoeta egitea.

2. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

Praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3 urte 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan (1.-2. maila, 3.-4. maila, 5.-6. maila) egiten dira. Practicum progresiboa izanik, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako Graduetako ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean gauzatuko dute ikasgai hori (Practicum I, Practicum II eta Practicum III); edukiek egonaldien jarraipena egingo dute eta, horiek aurrera joan ahala, konpetentzia mailak gora egingo du.

Practicumak emango dio ikasleari bere lanbidean behar dituen trebetasunak, ezagutzak, konpetentziak eta praktikak eskuratzeko aukera, baita egindako ikasketaren inguruan bakarka nahiz taldean hausnartzeko ere.

Ikasgaiari dagozkion kredituak taula honetan adierazten den moduan banatzen dira:

Taula 1. Kronograma

	EGONALDIA	EPEALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5 aste (30 ordu astean)	urria- azaroa	HH: 8 kr. LH: 9 kr.
PRACTICUM II	7 aste (30 ordu astean)	otsaila-apirila	HH: 12 kr. LH: 11 kr.
PRACTICUM III	12 aste (30 ordu astean)	azaroa-otsaila	HH: 18 kr. LH: 18 kr.

Practicum I ikasgaiaren helburua ikasleek, irakasle izango diren neurrian, ikastetxe batekin lehen harremana izatea eta behaketa parte-hartzaile orokorra egitea da, ordura arte ikasitakoa erabiliz, eta irakaspenera horiek gelako aniztasunera, ikastetxera eta haren gizarte-ingurunera egokituz.

Practicum IIa hirugarren ikasturteari dagokio eta honako hauek lantzen ditu batik bat: garaian garaiko ikasleen irakaskuntza- eta ikaskuntza-esperientziak garatzea, zikloan eta etapan esku hartzea, eta autokritika eta hausnarketa lantzea norberaren prestakuntzan eta lanbidean. Ikasleek testuinguru horietan erabili duten hasierako ezagutza praktikoari, eta beren pentsatzeko eta jarduteko modua zehazten duten baldintzei buruzko hausnarketa egitea da helburua.

Practicum IIIa minorrarekin eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzearekin dago lotua.

3. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA

EHAA/2011n jasotzen den bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren arabera zuzentzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia, 2012ko urriaren 16koa, eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikasketen Practicumari buruzko 33/2018 Dekretua, martxoaren 6koa, arautzen dute Practicuma.

3.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

Praktikak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen Practicum Dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Practicum Dekanordetzak berariazko informazio-dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologia gomendagarriak, garatu beharreko prestakuntza-jarduera eta eginkizunak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntza-alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Behin praktikak amaituta, Unibertsitateak eta Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkiete ikastetxeetako tutoreei, hala eskatzen dutenean.

Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko. Praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, dagokion Aseguruak estaliko ditu.

Practicuma Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduei atxikitako enborreko irakasgaia denez, Fakultateak berak antolatzen eta arautzen du. Practicum Dekanordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicum Batzordearen laguntzarekin jarduten du. Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Practicum Dekanordetzara eta Batzordera jo beharko du.

3.2. ARAU OROKORRAK

- Ikasleak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak (HEFA) zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Praktikek iraun artean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipatutako alderen batekin lotutako aldaketak onartzea (ikastetxe-, denboraldi- edo ordutegi-aldaketak) Practicumeko Batzordeari dagokio. Beraz, ikasleek Batzordeari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, HEFAn kasu berezietarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera.

3.3. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio-eskariei erantzuteko nahikoa plaza emango dizkio.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako Batzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.

Behin ikastetxea esleituta, ikasleak praktiken onarpen-agiria eta horiek modu egokian garatzeko eta, kasuan kasu, bere esku dituen datuak babesteko konpromisoa sinatuko ditu.

3.4. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA (AUTOPRACTICUM)

Practicum IIIan, prozedura berezia erabiliko da: ikasleak bere kasa aukeratuko du praktiketako ikastetxea edo gunea, beti ere, bere titulazioan Gipuzkoan praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan direnen artean.

Ikastetxearekin adostu baino lehen, ikasleak bere mentzio edo minorrean matrikulatu beharko du.

Ondoren, mentzio edo minor horretako praktiken profila eta eremua ezagutu beharko ditu.

Behin hori guztia jakinda, ikastetxe batekin adostuko ditu praktikak (Practicum Dekanotzak zehaztuko ditu horretarako epeak), AUTOPRACTICUM orria ikastetxearekin betez eta adostutakoa GAUREko praktiken ataleko AUTOPRACTICUMa betez.

OHARRA: Prozedura hau alda daiteke Eusko Jaurlaritzako 33/2018 Dekretuaren ezarpen prozesuaren arabera.

3.5. BALIOZKOTZEAK

Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

Taula 1. Baliozkotzeak

Irakasgaia	Irakasgai osoa	Egonaldia bakarrik
Practicum I	HHko eta LHko diplomatua edo graduatua bada. <hr/> Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan aritu bada. <hr/> Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.	Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoko arduraldian jarduten bada.
Practicum II	HHko eta LHko ikasketetan diplomatua edo graduatua bada <hr/> Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.	Praktikei dagokien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten badu.
Practicum III		Praktika-denboraldian ikastetxe batean lanean aritzea ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, minoraren alorrean. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu.

3.6.KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK

Arau orokor gisa, Practicum enborreko irakasgai bat da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordu-tegi eta ordu kopuru bat dauka zehaztuta.

Ikasle batek ezin badu Practicum ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera "Kasu Berezi" bat izan daiteke:

1. Ikasketak eta lana batera egin behar duten ikasleak.¹
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.²
3. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak.³

¹ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10.artikuluaren arabera: https://www.ehu.eus/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf

² UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8.artikuluaren arabera

4. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleak.⁴
5. Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak.
6. Garapenerako Lankidetzaren programetan parte hartzen duten ikasleak.
7. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
 - a. Gaixotasunak, istripuak
 - b. Arazo administratiboak
 - c. Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera hauetako batean egongo den ikasleak eskaera formal bat egin behar du bere egoera "Kasu Berezi" bezala kontuan hartzeko. Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordioarik.

Egoera hauen aurrean ikasleak egin ditzakeen eskaera motak:

1. Praktikaldiaren egutegia aldatzea
2. Praktikaldiaren ordutegia aldatzea
3. Praktiken zentro aldaketa

Prozedura honako hau izango da:

1. Ikasleak kontenplazten diren kasu berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du.
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Practicum Batzordeak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
7. Practicum Batzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio eta zentroak egoera edo kasu bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta bere unibertsitateko tutoreari eta kanpoko tutoreari komunikatuko zaie. Zentroak baldintza bereziak ez baditu onartzen, beste zentro bat bilatu behar da.
8. Practicum Batzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin behar du eta ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten kasu berezietako eskaera guztietan, erantzukizun osoa ikaslearena izango da.

³ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9.artikuluaren arabera

⁴ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6.artikuluaren arabera

OHARRAK

- Gradua amaitzeko 3 irakasgai edo gutxiago falta zaizkien eta Practicum IIIa lehenengo lauhilekoan egin nahi duten ikasleek ezohiko epe bat izango dute, eta epe hori irailaren amaieran zabaldu eta abendu amaieran amaituko da (12 aste). Epe horiek ezingo dira ez aurreratu, ez atzeratu. Bere egoera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Data-aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.
- Egonaldiaren egutegia ala ordutegia aldatzea eskatuz gero, ikasleak gutxienez astean 15 ordu egin beharko lituzke baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintzeko aldera.

Egonaldia honako modu honetan luza daiteke, adibidez:

IRAKASGAIA	EGONALDIA	ASTE KOPURUA
Practicum I	Goizez Bakarrik	10 aste
Practicum II	Goizez Bakarrik	14 aste
Practicum III	Goizez Bakarrik	24 aste

- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, eskatutako praktikaldiari dagokion hasiera data bera izango du.
- Gutxienez bi goiz egingo direla bermatuko da.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.
- Ordutegia modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik.
- Ikastetxeak ezarritako etenaldietan soilik irten edo sartu ahal izango da eskolan.
- **Salbuespenak:**
 - Dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.
 - Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek memoria egin ezean edo gainditu ezean, hurrengo ikasturtean, egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

3.7. PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK

3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea

Koordinatzaileak izango du praktiketan dauden ikasleen heziketa-jarduerak koordinatzeko ardura bere ikastetxean, eta halaber, bere lana izango da unibertsitatearekin egoki diren harremanak egitea.

Ikastetxeko zuzendariak, bertako ordezkari gorena den aldetik, ikastetxe horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

Eginkizunak:

- Practicuma egiten ari diren ikasleei ikastetxean egin beharreko egonaldia erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.
- Hezkuntza-zentroko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Maisu-maistra tutore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa-prozesuan duten eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.
- Practicuma egiten ari diren ikasleen maisu-maistra tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.
- Practicumeko ikasleei Zentroaren Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Zentro hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek zentroaren bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak...

3.7.2. Ikastetxeko tutorea

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.

- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarri buruzko orientabideak ematea, baita Zentroko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Practicumaren egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea, eta Practicumaren egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzea.
- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa-ekintzak gainbegiratzea.
- Praktiketari dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa-ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa-ekintzak presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen konpetentziak ebaluatzeko azken balioespina egitea.
- Practicumaren egin bitartean izaten diren gertaerak unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Practicumaren hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.7.3. Unibertsitateko PIII-ko koordinatzailea

Practicumaren koordinazio lanak hauxe eskatzen du:

- Practicumeko Batzorde kidea da.
- Koordinazio eta kudeaketa akademikoaren arduraduna da tutorearekin batera.
- Gidako zereginen planifikazioaz arduratzen da, baita praktikaldiko koordinazioaz eta Practicum I-eko ebaluazio eta hobekuntza proposamen orokorrak egiteaz.
- Ikasleen esleipenaz arduratzen da.
- Gidak eguneratzen ditu.
- Tutore eta ikasleentzako behar diren informazio bilerak antolatzen ditu eta informazio eta formazio beharrak identifikatu eta batzordera eramaten ditu.

3.7.4. Unibertsitateko tutorea

Practicumaren tutoretza-lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza-lana bere gain hartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketen enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Zuzendariordetzak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikasgeletako jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko lotura. Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea ikasgeletan aplikatu daitezten, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetzan estu batetik abiatuta.
- Praktiketara ari diren ikasleekin bilerak antolatzea.
- Ikasleei Practicum programa erraztea.
- Beraren ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, zentroetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktikaldiari ekin baino lehen.
- Praktiketako kompetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz ohartaraztea ikasleari.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicum kalifikatzea.
- Practicum hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleekin praktiketako tutorearekin harremanetan egotea.
- **Bisitak ikastetxeetara:** Practicum IIIak irakaskuntza-aldi honetan parte hartzen duten agente guztien arteko lankidetzan-harremana instituzionalizatzeko aukera ematen du. Batetik, ikastetxeko maisu-maistren lana lehen eskutik ezagutzeko eta baloratzeko aukera ematen du, eta bestetik, zubiak eraikitzen dira unibertsitatearen eta ikastetxearen artean. Horrenbestez, praktikak egiten ari den ikaslea ikastetxean dagoenean, unibertsitateko tutoreak ikastetxe horretara koordinazio-bisita bat edo gehiago egingo ditu. Honako hauek izango dira bisita horren funtzioak eta edukiak:

1.- Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzea eta prozesuari buruzko dagozkion gai guztiak argitzea.

2.- Ikastetxeko tutorearekin gida honetan proposatzen ditugun prestakuntzari buruzko alderdiak adostea, horrela, hark ere praktikak egiten ari den ikaslearen prestakuntzan parte har dezan.

3.- Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

3.7.5. Ikasleak

- Practicumaren fase desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horren araudia errespetatzea.
- Zentroko eta unibertsitateko tutoreekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak finkatzea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoetara jarraiki, ebaluazio jarduerak burutzea.

4. PRACTICUM II-KO PROGRAMA

4.1. HELBURUAK

Haur/Lehen Hezkuntzako irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte gelako lanean eragiten duten curriculum-diseinuetan jasotako esparru guztiak, betiere edukien naturaren eta konplexutasun-mailaren arteko elkarrekotasun egokia finkatuz; horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen-maila hartuko dira kontuan, uneoro haurren ikaskuntza autonomia sustatzen saiatuz.

Horretarako beharrezkoa izango da:

1. Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
2. Lankideekin taldean lan egitea.
3. Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
4. Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
5. Koordinazio-funtzioak betetzea.

4.2. KOMPETENTZIAK

Hezkuntzako graduak maisu-maistra gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak finkatzen dituen betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko kompetentziak:

Taula 2. Practicum IIIko kompetentziak eta deskriptoreak

PRACTICUM IIIko KOMPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
Ingurune sozialeko eta hezkuntza komunitateko lankidetzaren modu ezberdinak ezagutzea	LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN
Haur (0-3 eta 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) taldeetako elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK
Ikastetxe batean sor daitezkeen jarduera eremu ezberdinetako hobekuntza proposamenetan parte hartzea	HEZKUNTZA- ESKU HARTZEA
Praktika jardunetik hausnartzea, irakaskuntza-jarduneko ahulgunez eta indargunez ohartzeko eta baita ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren mugez ere	PRAKTIKAREN HAUSNARKETA

4.3. IKASKUNTZA EMAITZAK

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzeko dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jardura multzo bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako konpetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Konpetentzietatik zuzenean eratortzen diren "ikaskuntza-emaitza" deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza-emaitzek zehaztasun-maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza-emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio-irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle edo irizpide zehatzak, hau da, ikaskuntza-emaitzak bereganatu edo lortu diren baloratzeko erabiltzen diren ebaluaziorako adierazleak edo irizpideak. Prozesu hori behar bezala jasotzen da taula honetan:

Taula 3. Konpetentziak, I.E., E.A.-k eta ebidentziak

KONPETENTZIA	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK	
LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN	Minorraren alorretik, ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen inguru soziokulturalen parte hartzea	Hezkuntza komunitatearen eta inguruko gizarte eragileen arteko harremana bultzatzeko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO ⁵ Bisita	
		Hezkuntza komunitateko parte diren guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu	ITEO Bisita	
	Ikastetxeko taldean parte hartzea, minorraren alorretik dagozkion zeregin profesionaletan inplikatur	Parte hartzen du irakaskuntza- kalitatearen hobekuntzen sorkuntzan eta garapenean, ikerketa pedagogikoan eta irakats-jardura hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean.	ITEO MEP	
		Hezkuntza komunitatean lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu.	Bisita ITEO	
		Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarriketaren, argudioaren, negoziazioaren eta adostasunaren bidez .	ITEO Bisita	
		Praktikak burutzen ari den mailako eta zikloko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO Bisita	
	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK	Minorraren alorretik, ikasgelako taldearen antolaketa eta dinamika aztertu eta parte hartzea	Norbanakoaren garapen integrala lortzeko maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu.	Egunerokoa MEP ⁶ Mintegia Foroa
			Ikaste antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituen estrategiak erabiltzen ditu.	ITEO MEP
			Balioetan oinarritutako hezkuntza eta garapen sozio-kognitiboa ahalbidetzen ditu.	ITEO MEP

⁵ ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria

⁶ MEP: Memoria/Ebidentzia-karpeta/Portfolioa.

KONPETENTZIA	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK	
HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA		Ikasleak, egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu, ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko.	ITEO MEP	
		Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak ezartzen eta erregulatzen ditu.	ITEO Bideoa	
		Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta ikasleen arteko errespetuzko jarrera sustatzeko	ITEO Bisita	
	Programazio unitateak edo bestelako hezkuntza esku-hartzeak planifikatu, burutu eta ebaluatzea minorraren alorretik.	Pedagogia lerroa, antolaketa eta gela barruko dinamika aztertzen eta interpretatzen ditu, minorrean eragiten duten alorrei erreparatuz..	MEP Mintegia Foroa	
		Praktika garaian garatzen diren programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz.	MEP Mintegiak Foroak	
		Klaseak prestatzen eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez.	MEP Bideoa	
		Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak eta baliabide didaktikoak ..	ITEO MEP	
		Tutorizazio bileretan, maisu-maistren laguntzaile gisa, eta ikastetxeko bestelako bileretan (maila, zikloa, klaustroa) parte hartzen du .	ITEO MEP	
		Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen diseinuan, grapenean eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea	Ikastetxean martxan diren plan, proiektu eta esperientzia berritzaileak ezagutzen ditu eta minorrean eragiten duten alorrak antzematen ditu berauetan.	MEP Mintegia Foroa
		Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du .	MEP	
PRAKTIKAREN HAUSNARKETA	Irakaskuntza praktikaz hausnartzea minorraren ikuspegitik	Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du, lanbidearenak diren azterketa irizpideak erabiliz.	MEP Mintegia Foroa	
		Ikastetxeko tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du.	Bisita Mintegiak Foroak	
	Minorreko ezagutza teorikoak praktika profesionalarekin erlazionatzea	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu .	MEP Mintegiak Foroak	
		Ikastetxean antzemandako konpetentzia profesionalen eta horren inguruan norberak dituen arteko antzekotasun eta desberdintasunak behatzen eta egiaztatzen ditu.	MEP Mintegiak Foroak	

4.4.GAITEGIA

1. Gaia: Hezkuntza praktika eta ikaste-irakaste prozesuaren balorazio kritikoa

- Ikasgela: maisu-maistra tutorea, gelaren antolaketa eta dinamika, komunikazio prozesuen erregulatzea
- Kasuen diziplinarteko azterketa eta soluzio proposamenak
- Hezkuntza lankidetzak: moduak, metodologiak, programa eta proiektu motak
- Kudeaketa lanak

2. Gaia: Proiektu didaktikoen eta hezkuntza programen (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak ...) diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa, minorraren alorretik

- Prozesuaren definizioa: proiektuaren edo programaren garaiak
- Arazoaren azterketa eta definizioa
- Erreferentziazko marko teorikoa edo gaia
- Garapena eta diseinua
- Burutze edo ezarpena
- Eraitzen azterketa eta hobekuntza proposamenak

4.5. EBALUAZIOA

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: unibertsitateko tutoreak, eta Practicuma egin den ikastetxeko tutoreak. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan, unibertsitateko tutorearen ebaluazioak, azken notaren %70a balioko du. Gainerako %30a ikastetxeko tutoreak baloratuko du.

Irakasgaiaren beraren konpetentziak lortzea da Practicumaren helburua, eta horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio-irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat gainditzen ez badu azken nota gutxiegi izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ezohiko deialdian ez aurkeztua izango du.
- Ezohiko deialdian ere gainditzen ez badu, Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.
- Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian gutxiegi jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.
- Ikasleak kontuan izan behar du hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaiola.

5. ERANSKINAK

ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA (PRACTICUM III)

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:.....

.....

NAN:

IKASTETXEA:.....

IKASLEA:

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

Ebaluazio-irizpideak ikasleek lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko tutorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da, eta beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabeen irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN	Hezkuntza komunitateko guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardua eta etika profesionala erakusten ditu
	Irakaskuntza-kalitatea hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean parte hartzen du
	Lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu
	Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarrizketen eta adostasunaren bidez
	Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO- PROZESUAK	Antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituzten estrategiak erabiltzen ditu
	Egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu jarduerak ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko
	Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak menperatzen ditu
	Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta giro egokia sustatzeko
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAK	Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak	
	Tutorizazio bileretan eta ikastetxeko bestelakoetan parte hartzen du maisu-maistren laguntzaile gisa	
	Klaseak prestatu eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez	
	Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du	
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)	

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n, 201.....(e)koren(e)(a)n

ERANSKIN II. EBALUAZIO-ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM III)

UNIBERTSITATEKO TUTOREA:.....

IKASLEA:.....

GRADUA: MINORRA:

Hemen azaltzen diren irizpideak ikasleak lortu beharreko kompetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK	Maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu	
	Gelako dinamikan komunikazio prozesuak eta ikasleekiko harremana ahalbidetzeko teknika egokiak ezagutzen ditu	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):	
HEZKUNTZA ESKU- HARTZEA	Programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz	
	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetako bere parte-hartzearen azterketa egokia egiten du	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):	
PRAKTIKAREN HAUSNARKETA	Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du	
	Tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte-hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du	
	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):	

IKASTETXEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)	
KONPETENTZIAK	LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN
	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK
	HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):

OHARRAK:

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n , 201...(e)koren(e)(a)n